

50eko hamarkadako euskal literaturaren panorama laburtua

Pako Sudupe Elortza
Euskal idazlea

Hemen, irakurle, 50eko hamarkadako euskal literaturaren gaineko ikuspegi orokorra duzu, ezinbestean, asko laburtua eta ez osoa, zatikatua, hautatua baizik. Bereziki literatur euskararen ereduaz izan ziren eztabaidak jorratzen ditut, gai horretan gertatu zen bilakaera eta horrekin txirikordaturik, eredu ezberdinetan idazten zutenetarik idazle onenek egindakoaren lagin bat erakusten dut.

GAKO-HITZAK: Gipuzkera osotua · Lapurtera klasikoa · Humanismoa · Existenzialismoa.

This paper presents a general overview of Basque literature in the 1950s. Due to space restrictions, the overview and the summaries of the works considered cannot be exhaustive. The issues discussed in detail include the debate on the model of literary Basque, the evolution of the ideas in that debate and, in illustration of these issues, I offer a sample of the work developed by some of the best authors in each of the different language models defended at the time.

KEY WORDS: Enhanced Gipuzkoan · Classical Lapurdian · Humanism · Existentialism.

Jasotze-data: 2010-11-03. *Onartze-data:* 2011-01-30.

O. Sarrera

Artikulu hau irakurri duen lankide filologo batek aditzera eman didanez, kontu hauek ez dira Euskal Filologian ematen unibertsitatean, eta ona litzateke ematea gure memoria aberasteko. Gauza batzuk ezagunak dira, eta beste asko, berriz, guztiz ezezagunak.

50eko hamarkadan liburu gutxi argitaratu zen, baina aldizkarietan eztabaida bizi-biziak gertatu ziren, eta egun baino su gehiago sumatzen zen euskara eta kultura lotzeko, euskara egungo bizitza modernoko arlo guztietan duintasunez txertatzeko, eragozpen larriak eragozpen, edo hain justu eragozpen historiko-politiko-kultural horiek beroriek ziztaturik.

Argibide gehiagoren minez gelditzen denak, gauzak pentsatu bezala ateraz gero, laster *Utriusque Vasconiae* argitaletxearen edizioan aterako diren hiru liburukietan izan dezake jakin-mina berdintzeko aukera gehiago —lehen liburukia hizkuntza eta ideologia eztabaidei eskainia; bigarrena, kazetaritza eta saiakerari, eta azkena, antzerkiari eta 1950eko euskal literaturaren gaineko ikuspegi sintetikoari—, eta halaber *Egan* aldizkariak zenbait aletan aterako dituen bi kapituluetan, bata poesiari eskainia eta bestea narrazioari.

Jakitun naiz bati baino gehiagori nahasi samarra gerta dakiokoeela artikulua; batetik, hamarkada oso bateko ikuspegia garbi eta simple ematea nekeza delako, gehiegi sinpletu ezean; eta bestetik, nire gaitasun ezagatik gauzak argiago lotzeko batzuk besteekin.

Eskerrak eman nahi dizkiot hemendik *Uztarori* eskaintzen didan plaza honegatik.

1. Idazteko euskara ereduaren auzia

Aurretiko auzi bat egon zen guztiz presente hamarkada guztian: idatzirako zer euskara eredu erabili behar zen argitzea, eta batez ere, praxian erabilgarria zela frogatzea. Lehenbiziko aldiz lehia sortu zen, eta lehia horrek, besteak beste, ordurainokoa baino euskara gehiago erabiltzea ekarri zuen, paradoxazkoa badirudi ere, frankismo betean.

Gerraurretik zetorren euskal idazleen belaunaldia *Euzko-Gogoa* aldizkariaren inguruan bildu zen, zuzendari J. Zaitegi eta idazle izar Orixe zirela. J. Intxaustik aspalditxo erakutsi zuen nola Zaitegik, Ibinagabeitiak eta beste dozena-erdi bat jesuitagaik akademiato bat —eskolato bat— eratu zuten Loiolako santutegian, nobizio zirela, XX. mendeko 20ko hamarkadan, nagusiki latinez eta gaztelaniaz ikasten zuten kultura klasiko greko-erromatarra eta eliz gurasoena eta, lanarteetan, euskaraz ematen trebatzeko, eta nola amets hura benetan gauzatu egin zen 50eko hamarkadan *Euzko-Gogoa*rekin (Intxausti, 1979 eta 1980).

Baina erbestetik egin behar izan zen, gerra galdu ondoan, eta horrek asko markatu zuen, oztopoz zamatatu zuen ekimen Kixotetar hura, alde askotatik —gertaera esanguratsu bat: Jon Etxaide kartzelatu egin zuten *Euzko-Gogoa*ren ale batzuk aurkitu zizkiotelako etxean—. Aurrerago azalduko dugun bezala, Zaitegi aberriratzean Euskal Herriaren periferiara bideratu zuten, eta handik, zorrez itoa, erbestera itzuli zen atzera ere.

Ordura arte baino garbiago josi nahi zituzten elkarri euskara eta kultura, euskara eta literatura, euskara eta idatzi mota oro: filosofia, historia, giza zientziak. Eta horretarako euskara ereduak Azkuek aurkeztutako *gipuzkera osotua* edo zen; Zaitegik *euskara osotua* zeritzan.

Zaitegik, Orixek eta Ibinagabeitiak-eta erbestetik bezala, aberri barnetik, Bilbo-ko hiri erdaldundutik, euskara eta kultura lotzeko oihu ozena F. Krutwigek egin zuen. Azkue adinean aurreratutako hari gomendatu zion Euskaltzaindiaren geroa, eta hark bere talentu eta nortasun intelektual indartsua lagun —erregimenarentzat ez zen susmagarria, aita aleman faxista eta falangista izaki (Mintegi, 1984); semea, haatik, aitaren ifrentzua atera zen, eta 1952ko maiatzean, Villasanteren sarrera-hitzaldiari egindako harrera-hitzaldian, Eliza katolikoak euskararen aldera zerabilen jarrera zorrotz kritikatzegatik erbesteratu zen¹— oso urte gutxian —bizpahiru— Euskaltzaindia eraberritu zuen euskaltzain kopuruz, eta euskara ereduaz eta euskara politikaz ere hala egin nahi izan zuen —berak ezarri zuen estreinakoz euskara lan-hizkuntza erakundean, Julio Urkixo hil ondoan—.

Ez zuen lortu gipuzkera osotua baztertu eta lapurtera klasikoa ezartzea literatur eredurako. Zergatik? Hona arrazoi batzuk.

Iparraldekoak, P. Lafitte buru zela, nafar-lapurtera berriaren —XIX. mendearen bigarren erditik aurrera bereziki *Eskualduna* kazetan idazten zutenek usatua, eta Jean Etxeparek bere liburuetan erabilia— alde ziren, herri-euskaratik hurbil ibiltzearen aldeko sutsu, eta euskara kazetaritzan —*Herria* batez ere—, eta kantetan eta antzerkian eta herri-literaturan erabiltzearen aldeko; behar zutenerako egokiena lapurtera berriari irizten zioten, baxenabartar kutsuko lapurtera berriari, ez Leizarraga, Axular eta Etxeberri Sarakoaren lapurtera klasiko zaharrari. F. Krutwig urrun zegoen P. Lafitterengandik.

Kulturaren arlo guztiak euskaraz jorratzea ezinbestekoa zelako iritzian bat zetozen «euzkogogoatarrak» eta «axulartarrak»²—nafar-lapurteraren erabiltzaileak ez zetozen bat—; hizkuntza-ereduan, aldiz, alde handiak zituzten. Handienetakoa hiztegian. Azkueren irizpideari jarraiki, Zaitegik, Orixek eta Ibinagabeitiak-eta, auzo-baratzeetara hitz bila ezinbestean baino ez zela joan behar irizten zioten; lehenik, euskal harrobia ustiatu behar zen, Azkuek hiztegian jasoa eta artean jaso gabe zegoena Euskal Herriko hainbat lekutan. Zaitegik buruz zekien Azkueren hiztegia eta Olabidek *Itun Zaharra* eta *Berria* itzultzean erabilitakoa. Gustukoa zuen artikulu guztietan erakustea euskal hiztegiaren altorra zein joria zen. Orixek eta Ibinagabeitiak sen literario handiagoa zuten, nahiz eskola berekoak ziren³.

1. Puntu honetaz informazioa Euskaltzaindiaren Azkue bibliotekan dago. Krutwigek egin zuen hitzaldia, euskaraz eta gaztelaniaz; zer salaketa egin zioten.

2. Dakidala, K. Mitxelenak izendatu zituen deitura horrekin estreinakoz A. Oihenarti buruz Donostiako Aldundian, 1953an, egin zuen hitzaldian: «Labur beharrez, Axulartarrak dei genitzake, maisutzat Axular hartu dutenez gero». Mitxelena, K. (1988): *Euskal idazlan guztiak V. Literaturaren inguruan II*, Klasikoak 25, Kriselu, Bilbo, 53. or.

3. Honekin esan nahi dut Zaitegiri gehiago nabaritzen zaiola *hizkuntza-formalismoaren* ajea aipatu ditudan beste biei baino, hots, gauzak esan beharrak baino gehiago euskara landu nahiak bultzaturik aritzea, eta horregatik maiz samar hiztegi-jakintzaren erakustaldiak egitea, literatur sen gutxitzarekin.

F. Krutwigentzat, berriz, euzkogogoatarren joera besterik baino gehiago garbi-zalekeria zen; altxor greko-latindarra europar guztiona zen, eta oparo baliatu behar genuen testu pragmatikoetan; literaturarako irizpide ñabartuagoa zuen.

Krutwigen asmoek erreka jo zuten zenbait arrazoiengatik: 1. Hark proposatutako eredu kasik leizarragatarra jarraitzeko zaila zen; 2. Ez zuen obrarik argitaratua; eta erakusten zuen literatur ereduak ez zuen aski erakarmenik, eta 3. Ez zuen lortu kazetarik bere euskara eredu hedatzeko —saiatu zen *Gernikako* euskarazko artikuluak «gidatzen»⁴, bere ereduaren arabera zuzentzen, baina huts egin zuen, eta gainera 1952an jada erbestera jo behar izan zuen, gorago agertu dugun arrazoiengatik, hots, Eliza katolikoaren euskararekiko zabarkeria eta aurkakotasuna zorrotz salatzeengatik—.

Haatik, lehen unean, besteak beste, Aita Villasante —oso idazle ona zeinahi eredu harturik ere— eta Eusebio Erkiaga bereganatu zituen; geroxeago J. Mirande —idazle ona hau ere—, eta hein batean, G. Aresti gaztea, lehen poemetakoa. Alde batera galtzaile izan zen, baina arrasto sakona utzi zuen.

2. Euzkogogoatarren literatur ekoizpena

Gipuzkera osotuaren aldekoek —nahiz alde handiko idazleak eta idazkerak izendapen berean sartzan ditugun gauzak sinpletzearren—, hots, euzkogogoatarrek, zer ekoitzi zuten 50eko hamarraldian? Goazen mosaikoaren teselak laburkiro deskribatzera.

Gatozen, hasteko, maisuarenera. Orixe zen gerraondo minean euskal idazle miretsiena; obra handiena argitaratua berak zuen. Gerra aurrean idatzitako *Euskaldunak* poema nazionala izan behar zuena 1950ean atera zen. Baina beste garai bat zen gerraondokoa, eta Orixe Orexan ez baizik Ameriketako El Salvadorren zegoen, Erdialdeko Amerika eta Hego Amerikan barna zebilen.

1950etik 1954ra bitartean Ameriketara idatzi zituen olerkien artean daude «Berraondoko meza», eta «Igan beti nire lelo» saileko azken olerki «Osasuna» izenekoa.

Argentinako Buenos Aires probintziako Berraondoko elizan giroturiko bi poemetatik lehenbizikoa da «Berraondoko meza».

Gure aurkezpen zatikatu, puskazko honekin guztiz erara, poemak dituen hemezortzi paragrafoetatik hamargarrena eta hamaikagarrena bereiziko ditugu:

Iduritzen zaut/ orenen erdi nizala,/ eginak oro/ neretzat egin dirala;/ askoz ez handiz/ ez naute zenbait bezala/ lotsaz beldurtzen/ andiago dut ahala/ Jinkoa dugu/ giran orok erdi-leku,/ Aren iduri,/ denen erdian gaude gu;/ erdi-leku hauk/ muga bera dute pondu;/ bi giralarik/ elgar bat egiten dugu (Orixe, 1972: 514-515).

4. *Gernika* aldizkariko zuzendari I. Fagoagak Orixeri egindako gutunean, Krutwigen jarrerari buruz: «A tal punto llegó su despotismo que me conminó a enviarle el texto castellano del Editorial que anualmente consagro en euskera a la destrucción de Gernika, para que él lo vertiera al euskara». *Orixe gutunak (1917-1961)*, Utriusque Vasconiae, 2006, 475-76. or.

Ez du azalpen handirik behar, bera mintzo da aski klarki. Unibertsoaren erdi-erdian Jainkoa, eta haren idurira gizona ere, lurreko izaki guztien erdi-erdian. Unibertsoaren handitasunean gizakiak sentitu ohi duen ñimiñotasunik ez; gizakiaren handitasuna eta Jainkoaren alderako fede ezin irmoagoa. Bospasei urte beranduago Txillardegik arras bestelako sentipena ageri zuen: gizakiaren ñañotasunaren kontzientzia, unibertso hondar gabe, izar-konstelazio eta galaxia ezin handiago eta konta ezinen eskergatasun alimalekoan hauts izpi! (Txillardegik, 1958a).

Baina gerraondoko garaiaren joera nagusiarekin bat⁵, Orixek ere barnekoak atera zituen kanpora, min ematen zioten arantzak. Gauza jakina da Orixek zazpi urte astun borrokazko igaro zituela jesuitetan, azkenean etsi eta atera beharrean gertaturik; Espainiako gerran Iruñeko Ezkaba mendiko San Kristobalگو gotorleku-espetze fama txarrekoan hilabeteak egin zituen preso, eta Bigarren Mundu Gerra hasi berrikan Zuberoka ondoko Gurseko kontzentrazio-zelaian beste hilabete batzuk, eta harrezkero Frantzian, Iparraldean, eta gero Ameriketara ibili zen hiltzera jaioterrira itzultzeko.

Arantza minberenak jesuitetan nozituak. «Getsemani» izeneko poemara azaldu zuen nola lortu zuen oinazea arintzea, Jesukristok olibondoen baratzean eta haren ondoko pasioan, Jainkoak hala nahita, pairatu behar izan zituenak, Orixek berak jesuitetan jasandako sufrikarioekin alderaturik:

Antxe, Jauna, ba dakizu, geldi nintzan bakarra./ Otoitz-aspertu bat nai, ta debeku nun negarra./ Belaunen gain egoteko galdu nizun indarra./ Eseri naiz; ezin egon; ez dator deiadarra; Orduntxe, Jauna, nolako miña/ etorri zitzaidan neri!./ Zuk eta biök bakar dakigu/ zazpi urte beltzen berri./ Zuk neri miñak bialdu eta/ ni guzien gain igeri./ Zure laguntzaz ezin nezaion/ ukorik egin ezeri. Ezin dut âztu Urli'ren bidez/ erauntsi zenidan lorra;/ ez Sandi arek bide-erdian/ ipiñi zidan zoztorra;/ gero, Berendi egin nun topo,/ gogorrik bazan gogorra./ Guzi oiekin ordaindu bezat/ nere gaizkigiñen zorra (...) Gerta-bearra gerta zanean,/ beste biderik ez neukan./ Ukatu, nola? Esku on orri/ etsian muñ bear eman./ Etsi garaia eldu zanean/ biotz osoz nizun esan:/ «Nik ez, Zuk naia gerta dedilla/ zeruan eta lurrean» (Orixe, 1972: 540-542).

«Osasuna» deritzanean, Jaunari eskerrak eman zizkion barneko bakea eman ziolako, bera izan zuelako osagile onena: «Otoitza, Otoitza! pakearen ama,/ nere sendabide, indarren iturri!./ Sar nadin maizago betiera ortan/ aldarerik gabe, naiz ustez ez igi» (Orixe, 1972: 591), eta heriotzaren aurrean ere, Jaunaren laguntzarekin, beldurti atzera egin ez izana baieztatzen du, eta Jaunaren nahiari gomendatuz bururatzen du poema-otoitza:

«Erio jaun orri, bekoz beko gerta,/ dardar egin gabe eman diot begi.// Ba dakizu, Jauna, ez dala gezurra/ neurtitzez; ola da gerta bezain egi.// Oraintxe bai bipil, kolkoa zabalduz/ egiz diotsazut: NAI DUZUNA BEDI» (ib.).

Gorago esan dugu gerraondoko garaiaren ezaugarri bat dela gurean poesia pertsonala, barnekoia. Uste sendo hori berrestera garamatza beste euzkogogotatzen baten olerkigintzak, Nemesio Etxanizenak.

5. Gerraondoko delako joera nagusi horretaz, hain zuzen barne-egia adierazi beharraz, hirugarren liburukira bildutako azken kapituluari mintzo naiz.

Gerraondoan euskarazko literatura jarraitzen zutenek —Orixeren «Berraondo'ko meza» eta «J.S. Bach'i elizan» olerkiak-eta *Euzko-Gogoan* irakurriak zituztenek—, *Eganen* 1953an eta *Euzko-Gogoan* 1954-55etan N. Etxanizen olerkiak irakurtzean, bortizki sentitu behar zuten desberdintasunaren zirrara.

Orixeren poemetan bi izenorde dira nagusi: poetaren Ni-a, eta Jaunaren Zu-a; N. Etxanizenean, olerki indartsuenetan, Ni zalantzati-antsiatua, fedea eta ziurtasuna koloka dituela, edo bestela, Ni eta bere ahotsez poeman mintzo ez den Zu *partenaire* isilaren arteko elkarrizketak dira, poetaren Ni-a, emakume Zu-arekin, amodio ezinezkoak, edo zapuztuak korapilatzen.

Ni ilun antsiatuaren paradigma *Eganen* argitaratu ez zen eta garai hartan ezin argitara zitekeen «Siñistezaren illuna» du:

Argi galderaz/ urratutako/ nere gau-bidetan noa,/ itxas-ogerik/ beiñere ez duken/
ibai-uretan itoa./(...) Nun duke nere/ zalantza onek/ azken-portuko leloa?// Etokizun
beltz!// Zer duk neretzat?/ Poza?...Ezaren zuloa?... (Etxaniz, 1978: 232)

Eta beste hau ere, «Gogo amilla», izenburuaren jabe, nabarmentzekoa da:

Nora noa? Adimen-zurrunbilloan,/ Zorabio det. Garunetan, naspil./
Ezpai...Zalantza...Ote'ka naiz murgil./ Nere egazkiña, egak ausita,/ gogo-leizean zait
amil (Etxaniz, 1978: 241).

Filosofia moderno subjektibistaren eragina dirudienaren nondik norakoaz galdetuz gero, N. Etxanizek, ziur aski, 36ko gerran eta gerraondoan ikusi eta jasandakoek sortutako gogo-aldarteari egotziko zion. Bergaran zegoen apaiz laguntzaile gerra hastean. Burgosera jo behar izan zuen ihesi; han lehenbizi eskuzabalik hartu zuten, gorrien aldetik ihesi joan zelakoan; gero hala ez zela jakitean, Gasteiza bidali zuten; Lauzirika Gasteizko gotzainak ez zion bakean utzi Deban, anaiarenean bizi zela; beste zenbaitek baino leunagoak baina bereak jasan zituen gerra garaian eta gerra ondoan, eta 1953-54 inguruan, Erromatik zigor kanonikoa espero zuela, jaioterritik Donostiara egin zuen, zigor hark, gauzatuz gero, ekar ziezaiokeen lotsaren eta zeresanaren itzal gaiztoa lagun zuela.

Maitasun zapuztua «Argatik» deritzanean zoragarri dago poematizatua. Maitasun gauzatua lehenbizi:

«Argatik alkar/ maite izan gendun/ iñular girora» (Etxaniz, 1978: 227), ilunabarraren sinbolopean. Egunaren progresioarekin bat, maitasunaren gainbehera, eta buruenik, haustura: «Argatik gure maite-ustek,/ —zorion-azi—/ gau aretan/ ziran ausi!» (ib.).

Beste olerki batzuetan maitasun-harremana «hain urruti eta hain hurbil» hautemandakoan deuseztatzen da edo apenas gauzatzen; maitasunari gorrotoa agertzen dio harakoan, gogo-baretasuna astintzen diolako...

Orixek bere barne-egia adierazi zigun gizaditik aldendurik, Jainkoak egindakotzat jotako natura, izaki eta eliza isiletatik; Jainkoaren alderako maitasun harreman mistikoa poema bihurtu zuen. N. Etxanizek maitasun profanoa, gizaki artekoa bihurtu zigun poema. Orixerekin bitzta haren borondatearen gorabeheran eta

abaroan ulertu eta sentitzetik igaro ginen N. Etxanizekin giza bizitza filosofia moderno subjektibistaren eraginpeko ondoezean sumatzera.

Goiago aipatu ditugun poemak argitaratzen ari zen garai bertsuan, Orixe *Quito'n arrebarekin* izan zuen elkarrizketa ematen aritu zen *Euzko-Gogoan*, atalez atal. Infernua izeneko atalera heltzean, matxinada, 1936ko gerra datorkio oroimenera. Ekaitz beltzarekin alderaturik, hodei koloreen euskal sinbologia tradiziozkoa mailegatuz eta landuz, euskaldun katolikoentzat giltzarri zen puntua garbitu zuen: gorriekin, errepublikaren aldekoekin batean zergatik joan ziren jeltzale katolikoak: berek hala erabakirik ala faxistek eta laguntzaileek hartara bultzaturik? Hona Orixeren erantzuna (Orixe, 1951):

Gezurra, bai gezurra! Berak bialdu gindunan Zurien Buruxkilak gorriekin, eta askotan berak aitortua. Zuri esango zienat, paltso esatea bezala baita. Lenbiziko amabost egunetan mintza-errañu ta periodiku ago batez ari izan zitxinan: «Eup! Alde batetik gu, españar yatorrok; bestetik Marx' kume ta Euskaditarrak. Kuku oiek! Isastu bear zetuagu betiko gure lurretik. Or zegon Diario de Navarra, nai dunak irakurri. Zer ari izan zan lenengo amabost egunetan? «Garbitu bear ditugu betiko Marx'-kume ta Euskaditar guziak. Aiek alde batean; gu bestean. Orra muga zearo ipiñi». Muga berek ipiñi zunate eta berek oiuegin. Beraz, beraiek aitortuz, ez gindunan yonan gu gorriekin; aizatu egin gindutenan.

1936ko gerraren egia adierazteari zabaltzen zion atea, galtzaileen egia ezagutarazteari, modu literario ezberdinetan, euskaraz. Salvatore Mitxelenak geroxeago argitaratu zuen *Arantzazu: Euskal Sinismenaren poema* izenekoaren hirugarren zati zen «Bizi nai»⁶. Francoren jazarraldiak zatitutako euskotarren batasuna aldarrikatzeko XIX. mendeko lehen gerra karlistara egiten zuen atzera, azkenean, batasun politikoa baino gehiago teologikoa proposatzeko. A.M. Labaienek *Lurrikara* antzerkian 1936ko gerraren jeltzaleen ikuspegia eman zuen⁷, eta, S. Altubek beste horrenbeste *Laztintxu eta Betargi* kontakizunean⁸, inperatibo morala ezarriz euskaldunei, hainbeste gizaki hobengabeko erail zituen erregimena onar ez zezaten, biktima errugabekoen omenetan. Ildo bertsuan Martin Ugaldek 1961ean *Iltzailleak* liburuan, bost ipuin labor bildu zituen: 1936ko gerran batere errurik gabe eraildakoa ardatz; guardia zibilen bi izu-ekintza eta herritarren kontrakarra, torturatzerara daramaten abertzale baten suizidioa, eta salatari bat harrapatzeko ekintza deskribatzen duena⁹.

Ez goaz orain euzkogogoatarrek ekoizitako guztia birpasatzera. Pintzelkadak ematen jarraitzen dugu. Halere, atal honen hasieran esan dugu asko sinplifikatzen genuela euzkogogoatarrak denak zaku berean sarturik.

Tentsio bat egon zen erbesteko eta aberriko euzkogogoatarren artean. Labor adieraztearren: zailegi idazten zuten Orixe eta Zaitetik —Ibinagabeitia zailtasunaren irudimenezko lerroan erdialderago zegoen—; bai, gauza zailez ezin erraz idatzi, baina, halere, zailegi, edota gai zailegiei buruz —Zaitetik, esaterako, Greziako filosofoez eta—; errazago eta gai prosaikoagoei buruz idatzi behar zen.

6. Errazena eskuratzeko *Susa*-ren klasikoen gordailuan: klasikoak.armiarma.com.

7. *Euzko-Gogoa* (1955), 5-12. zk.; edo *Susaren* klasikoen gordailuan.

8. *Alderdi* (1957); *Hordago* (1979).

9. Lehenbizi Venezuelan, Cromotip, 1961; eta bigarren edizioa, Erein, 1985.

Errazago idazte horretan erreferentzia bat M. Lekuona zen, gerra aurretik joera herrikoiaeren paradigma. Esaldi laburrak, herriko hizkeratik hurbil; baina, esango nuke, ildo horretan gerraondoan gehien asmatu zuena Salvatore Mitxelena izan zela. Haren *Ama-semeak Arantzazuko kondairan* (1951) eta *Unamuno eta Abendats* (1958) estilo herrikoia eta aldi berean landuan idatziak eredu garri gertatu ziren, batez ere Nemesio Etxaniz eta gisakoentzat. Eredugarri hizkera aldetik eta euskararen aldeko borroka latzerako suspergarri, eduki aldetik ere. 50eko hamarkadan arantzazualetasunak izan zuen arrakastarik (N. Etxaniz-en antzerki *Gabak zekarren eguna*, eta T. Monzon-en *Menditarrak* lekuko, besteak beste...).

Hizkera eta landu beharreko generoen aldetiko tentsioak gorabehera, hauek guztiak, erbestean zirenak nahiz aberrian, bat zetozen puntu honetan: kultur gaiak lantzean, Azkueren irizpidea eta hiztegia baliatu behar ziren; maileguetara ezinbestean baino ez zen jo behar.

3. Axulartarren literatur ekoizpena

Lapurtera klasikoaren aldarrikatzailea F. Krutwig izan zen gorago adierazi bezala. Euskal idazle on batzuk literatur euskararako proposatu zuen eredu garri konbentzitu zituen: L. Villasante, E. Erkiaga, L. Akesolo, J. Mirande, G. Aresti; eta, beste batzuegan, berriz, bere ikuspegi filosofikoengatik edota historiko-politikoengatik eragin zuen: Txillardegia, Mirande. Eragile gisa arrasto sakona utzi zuen eta gerraondoko lehen abiadan garrantzi handia izan zuen.

Hamaika soneto eta bi itzulpen argitaratu zituen *Egan*, *Gernika* eta *Euzko-Gogoan*. Hedabideak mezuan duen garrantziari kasu eginik, lehenik, Francoren erregimenak onartzen zuen hedabide batean hasi zen; eta segituan erbesteko hedabide klandestinoetara iragan zen.

Egan aldizkarian 1949an argitaratu zuen sonetoan honela irakur daiteke:

Gizonaren jakintza/ itsasoko uin bat bezelakoa/ bethi beko lurretan./ Nihork ezkari zein dan/ Ta suntzitzen da ikhusi banno lehen./ Ezereztik gathorrtza—/ ezer ezkera—/ezerezerat gohaz/zer da biziau/gezurr bat baizik?/Guztia gezurra da;/dena irudia;/eztagoz ez gizonik;/ez arimarik;/dena atzipera da (Krutwig, 1949).

Galdera etsiak eta erantzunak ukakorrek, A. Schopenhauerren eraginpekoak dirudite. Ildo bertatik *Gernika* aldizkarian 1951n:

Zer zara zu, ene gogoia, hemen?/Zergatik jaiotako ta zergatik bizi?/Bilhatzen dut eta ezin atzeman (.) Nora-naiz joan, gora naiz behera?/Bethi ikhusiko dugu begi itsuez/Gezurra bai-ta gure Asturua/Kosmos bai-takhusagu estalduez (Krutwig, 1951a).

1952an, *Euzko-Gogoan*, «Bulharraren labyrinthua» deritzan poeman, budismoaren helburua den Nirbana aipatzen zuen:

Gauzen izaitea Ezerezean/ dago; Nirbana da beren zentzua/ Gauzen gauza ezin da bilhatzea/gauzek barruan gezurra baitaukate./Lanhoa da oro, mundua, elhea./ Ezer eztago, eztago Gogorik,/ Spiritua ez da Kimaira baizik (Krutwig, 1952).

Azken poema horren zati hori, guk berariaz aldatu dugun zati horixe aldatu zuen Orixek «Ezinbestean» izeneko artikuluan, A. Ibinagabeitiari azaltzeko Krutwigen gisako humanismoarekin endekapen moralera gindoazela:

Ez dakit Krutwig Budaren ala Tzeus' en seme dan. ¿Neurtitz oiek lumari erdoia kentzeko egin ote ditu? Ala ere arinkeri aundia litzake. ¡Ara, mutikoak! Oraitxe sartu da euskera gizabidean, lainkoa ukatzen ikasi baitu. ¡Zer zadura-badura nâsiak ematen ditugun zartari berri ortan! (Orixek, 1953).

1952tik aurrera ez zuen sonetogintzan jarraitu, beraz, oso aldi laburreko lantegia izan zuen. Baina urriak izanagatik, F. Krutwig gazteak ondutako soneto filosofiko-existenzial kutsu helenista-budistakook ordurainoko euskal tradizioarekiko haustura ikaragarria zekarten, mundu-ikuskerak kristau-katolikoarekiko arrakala erabatekoa.

Gipuzkera osotuaren aldekoen eta lapurtera klasikoaren aldekoen arteko tirabiran ez zegoen soilik hizkuntza arazoa —aurrerago «h» letraren inguruan sortutakoan ere ez zegoen bezala—, mundu-ikuskerarena ere bai. Orixek eta Krutwigek humanismoaz izan zuten eztabaidak horixe salatzen du.

50eko hamarkadan izan ziren eztabaida ideologikoei eskainitako atalean eman dugu humanismoaren inguruan horren berri zehatzagoa (Orixek, 1950; Krutwig, 1951b). Laburkiro: Orixeren iritzian, Mendebaldeko zibilizazioak gudura gindermatzen Jainkoaren aginduak eta Jesukristoren erakutsiak bazter utzi genituelako. Krutwigek ere, halaber, gudu anker-bidegabea Mendebaldeko zibilizazioaren ondorioztat jotzen zuen, baina gaizkitik askatzeko Asiako kulturetara jo beharra aldarrikatzen zuen: hinduismoa eta taoismoa geureganatzera dei egiten zigun, sonetoetan bezala hitz lauz.

Gorago adierazi dugu L. Villasante bereganatu zuela F. Krutwigek lapurtera klasikorako. Hizkuntza eta ideologia kontuak alde batera nahastuak zeuden, baina, bestalde, konplexuak ziren. Villasante ideologia aldetik guztiz ortodoxoa zen, teologia dogmatikoa ematen zuen, apologetika —Denzinger teologo katoliko famatuaren *Enchiridion Symbolorum* egia dogmatikoen bilduma zuen gidaliburua, eboluzionismo, materialismo eta arrazionalismoaren aurkari gotorra—; alabaina, literatur ereduari buruz, erabat Krutwigen ikuspegiaren aldekoa. Krutwigek berak kontatu izan duenez (Murua, 1997: 83-85), garrantzizkoa zen frantziskotarren ordenan euskara lantzen ari ziren frantziskotarretarik norbait euskaltzain egitea ordena horretakoek euskara landu zezaten, eta Imanol Berriatua eta Luis Villasante artean Lete probintzialak eta berak L. Villasante hautatu zuten. S. Mitxelenari dagokionez, haren *Arantzazu: Euskal Sinismenaren poema* goretsi zuen getxotarrak, baina S. Mitxelena Orixek, Zaitegi eta Ibinagabeitiaren sokakoa zen¹⁰.

10. S. Mitxelenak bere burua *Euzko-Gogoako* jotzen zuen —Andima Ibinagabeitiak harreman aurrez aurrekoa eta gutun bidezkoa izan zuen berarekin; eta gutunetatik ateratako informazioa da—. Gutunok oraindik argitaratu gabe daude Bilboko Azkue bibliotekan. F. Krutwigek hitz hauekin goretsi zuen S. Mitxelenaren poema: «Poema honetan gure herriaren botzak eta naigabeak, nekheak eta lehiak sentitzen dira. Egiazko, zinezko poesis guztietan bezala, nundik dathorren eztakigun aingeru bat gugan sortzen dela aditzen dugu. Liburu haur irakurruten hari garenean, gure izpirituak, lekhoreko munduan eztagozen gauzetarat, bertz mundu batetan manatzen duten indarrak eta idealak gana hegaz egiten duela sentitzen dugu (...) Mitxelenaren poematek, honen egiteko, izpirituzko hegialak eduki daduzkate» (Krutwig, 1950: 302-303).

Aita Villasantek bere egin izan ez balu lapurtera klasikoaren aldeko deia, segur aski Krutwigek ez zukeen lortuko izan zuen eragina. Batere dudarik gabe Krutwigen ideia eta arauai etekin praktikoa ateratzen onena Villasante izan zen; idazle ona zelako. Haren Euskaltzaindiaren sarrera-hitzaldia «Literatur euskara laphurtarr klasikoaren gain eratua» testu eder bat da. Ibinagabeitiari asko gustatu zitzaion, nahiz elantxobetarra Azkueren eskolakoa izan; eta Joseba Intxaustiri plazera eta harrotasuna eman zion hitzaldi horrek: hain gutxietsia zegoen hizkuntzan ere posible zen goi-mailako testu ederrak idaztea¹¹.

Jon Mirande ere Krutwigen hizkuntza-ideietara etorri zen, eta lapurtera klasikoz hasi zen idazten. Hark ere lapurtera klasikoak Krutwigek baino maisukiago zerabilen. Ideologia aldetik ere eragin zion Krutwigek Miranderi hura Bilbotik Parisera joan zenean erbesteraturik. J. Mirande bat etorri zitzaion euskaldunen historia politikoaren interpretazioan, bereziki Gaskoiniako dukerria eta Nafarroako erresuma euskaldun-germaniarren arteko nahaste emankorretik eraiki zirelako ustean, eta gainbehera Erromako elizaren eraginez etorri zelako iritzian.

Txillardegirengan, halaber, eragin nabaria izan zuen. 1949an Bilbon ezagutu zuenean, greko klasikoak ikasteko aholkatu zion, eta halaber, De Brooglie eta Schrödinger zientzialariak irakurtzea, teoria kuantikoaren eta uhin-mekanikaren ikerketetan printzipio eta ekuazio garrantzizkoak ezarri zituztenak; eta eskola budista bateko txartela erakutsi zion. Budismoaren alderako isuri eta sentikortasun berezia izan du beti Txillardegik, idatzi dituen artikuluak eta *Peru Leartzako* eleberria lekuko; eta, halaber, astronomia eta unibertsoaren sorrerari buruzko teoriak kezka-iturri izan ditu.

50eko hamarkadaren lehen urteetan F. Krutwigek Euskaltzainditik eragin zuen kultur astinduaren ondorioz, literatur ereduari buruzko eztabaidan ideia, ikuspegi eta jarrera hauek zebiltzan puri-purian:

1. Gipuzkera osotuaren tradiziotik zetozenentzat, XIX. mendera arteko idazleak goratzearren azken berrogeita hamar urteko idazleak baztertzin ari ziren; XX. menderainoko idazleak goratzen, eta azken berrogeita hamar urteko idazleak beheratzen. Axulararren ikuspegitik begiraturik, aldiz, XX. mendeko lehen zatiko euskal idazleek ez zuten aski bereganatua idazle zaharren ekarri baliotsua.
2. Aurrera begira, ematen zuen gipuzkera osotua edo lapurtera klasikoak izan behar zuela idazteko euskararen batasunerako ardatz. Nafar-lapurteraren aukerak hasieratik baztertuta ematen zuen.

Defendatzaile eta ordezkari behinena zen P. Lafittek aitortzen zuenez, beha zegoen Hegoaldekoen arteko eztabaida horrek zer ematen zuen; alde batera, Krutwig-Villasanteren teoria berriaren aldera makurtuago, garbizalekeriaren aurkako jarreran, baina Orixek bezalatsu, Villasantek-eta hiztegiari zego-kionez, neurriaren muga gainditua zutelako iritzia zuen.

11. J. Intxaustirekin izandako elkarrizketetako batean neuri kontatua.

3. Beste puntu garrantziko bat euskal literaturaren hartzaileena zen. Norentzat idatzi behar zen? Laborari, arrantzale, ofiziale edo herri(xk)etako eskulangi-leentzat soilik? P. Lafitte, E. Salaberry eta horien iritzian eta soziologian, hortxe nonbait; baita A. Mokoroaren iritzian ere. Ala haientzat ez ezik Orixek aipatzen zituen ehun apaiz, berrehun fraide eta berrogeita hamar galtzadun ikasi samarrentzat?, edota F. Krutwigek, J. Mirandek eta A. Ibinagabeitiak zioten bezala, herri nahiz hirietako gizatalde ororentzat, kristau fededunak bezala panteistak, neopaganoak, ateistak, edo kristotar-teistak bai baina Vatikanozaleak ez zirenak, nonahiko intelligentsietan egon ohi ziren gizatalde guztientzat, ziren bezalakoak zirela eta pentsatzen edo sentitzen eta jokatzeko zuten bezala jokatzeko zutela ere?

F. Krutwig erbestera joan zen, eta itxura batean ematen zuen euzkogo-goatarrek irabazi zezaketela, baina literatur ereduaren bilakaera bestela joan zen.

4. Iparraldean Herria, Gure Herria eta antzerkigintza

Goiago adierazi dugu Lafitte eta Salaberryrentzat-eta herri-prentsa eta antzerkia edo horrelakoak zirela lehentasunezkoak, hartzaileak kontuan genero horiek landu behar zirela. Euskara eta kultura erabat lotzearen kontu hori utopikoegia zen, errealitatekin at zegoen, eta hitz batean, ezinezkoa.

Herria informazio- eta iritzi-astekari herrikoa bultzatu zuten; Frantziako legearekin konplizterako ale guztietan artikulua bat frantsesez eta gainerakoak euskaraz kaleratzen zituen. Lau mila ale inguru banatzen zituen, beraz, beste ezein aldizkarik baino gehiago, eta esan liteke okertzeko beldurrik gabe, kontuan hartzeko eragin soziala zuela.

Lehen orrian asteko berri politiko-kultural garrantzizkoenak agertzen zituen: nazioartekoak, Frantziako estatukoak, eta Euskal Herrikoak. Eta ezker aldean, iritzi-artikulu bat, gutxi gehienetan E. Salaberryrena euskaraz, gehienbat nazioarteko eta Frantziako politikaz, eta inoiz Euskal Herrikoaz. Albiste nagusiei buruzko iritziak ere bai inoiz, sinatu gabeak —maiz, P. Lafitterenak—. Barruko bizpahiru orri handietan herrietako kronikak, eta beste artikulua zenbait, maiz euskal kultur gertakariak lotuak, euskarazko antzerki, pastoral, liburu-iruzkin eta gainerako. Azken orrian gehienbat iritzi artikulua, eta ia beti E. Salaberryren artikulua bat frantsesez.

Zer-nolako ideiak sostengatzen zituen? Hona P. Lafitte zuzendariaren arropostua:

Argilari gisa, gertakari mota guztian, batetik Jainkoaren eskualdea dugu sostengatzen eta bertetik Eskual-Herriarena. Nahi dut ez dela bethi errex ikustea zoin eskualde sostengatuz ditugun hobeki zerbitzatuko Jainkoa eta Eskual-Herria... (Lafitte, 1956, edo Sodupe, 2002: 374-375).

Goiburu horiek zehaztera etorri, «Oraiko gertakarietan» izenburuaren azpian, Frantzian:

Elizako buruzagieri jarraikiz: Eskola libroak, jende xehen aldeko legeak, C.F.T.C (langile girixtinoen zindikata), garbitasunaren aldeko legeak (ez dibortzarik, ez eta zikin-etxerik) ditugu, bertzeak bertze, sostengatzen.(ib.)

Espanian:

Hango Eskualdun anaiak, Madrilen petik libroxago nahi ginituzke ikusi, eta heien ta gure arteko mugak, leguntxago.(ib.)

Munduan:

Bazter nahasle, burrunbari, ohereketari guzien kontra gira, izan dezaten zimendu: komunikoa, arrazaren urgulua edo beren fantasia (ib.)

Euskal Herriko politikaz:

Gure ametsa da Eskual-Herriko zazpi probintziek, egun batez, bat egin dezaten...Bainan Eskual-Herriaren «bat-ze» hori nahi dugu Europa eta Eurafrika behin, handiago zerbait gero izanen den erresuma baten barnean eta pean. Hortakotz gira hemen Europa eta Eurafrikaren alde eta heien lehenbailehen eraikitzeari atxikiak (ib.).

Gure Herria, berriz, kultur aldizkari bihilabetekaria zen. *Herria* xumeagoa, eskola gutxiagoko irakurleentzat, *Gure Herriak* xede goragokoak zituen, jende eskolatuagoa baitzuen irakurle.

J. Saint-Pierre zuzendariaren hitzetan: «Dés le premier jour, Gure Herria adopta une manière qui demeure à mi-chemin entre la vulgarisation populaire trop poussée et le maquis scientifique ouvert aux seuls initiés»¹²; lehen aldia 1921etik 1939ra; eta, Hegoaldean euskaldunek zuten egoera makurra beste eragingarri bat gehiago zen 1939tik atera gabe egon ondotik, berriro abiatzeko, 1950ean: «La carence actuelle des manifestations de la pensée basque chez nos voisins des Provinces, nous oblige à un nouvel effort» (ib.).

Artikulu ugari historiko-kultural deiturapean sar litezkeenak ageri dira, esaterako, «Les chapelles basques» nahiz «Le marché d’Hasparren» edo «Notes sur l’histoire de la paroisse de Cambo»; Jean Elizalde *Zerbitzarik* Azkaine herriari euskaraz eskainitako saltsa-maltsa ere genero berera biltzekoa da.

Leon *Berrizarte* hazpandarrak alegia anitz kaleratu zuen, Paul Guilsou, P. Larzabal eta Mayi Elissagarayk antzerkiak, eta Iratzederrek, Oxobik eta beste hainbatek olerki edo bertsoak eta, halaber, mintzaldiak. Eskualzaleen Biltzarrak urtero egiten zuen egunaren berri jasotzen zuen, ikasleek egindako euskarazko idazlanei emandako sariak barne, eta zerbait bereziki nabarmentzera jarritz gero, Baionan, 1959ko irailean egin ziren jardunaldi pedagogikoen berri eman zueneko nabarmenduko nuke, IKAS elkartearen sorrera eta jarraipenarena.

50eko hamarkadan, P. Lafittek aski argitaratu zuen bertan, eta idazkari ere izan zen. E. Salaberryk eta P. Larzabalek ere dezente argitaratu zuten. M. Erdozaintzi-Etxartek eta Jean Etcheparek gutxi. Jean Elizalde *Zerbitzari*, berriz, lankide iraunkorra izan zen.

Horiez gain, beste idazle batzuek ere argitaratu zuten: G. Epherrek, X. Arotzarena Zephuruk, A. Constantin mediku atharraztarrak, eta 1959ra arte Eskualzaleen Biltzarreko lehendakari izan zen L. Dassancek eta haren ondoko lehendakari M.

12. Ikus *Herria*, 1952-06-12; edo Sudupe, 2002: 309-313.

Labegueriek. P. Narbaitz bikarioak, J. Caminok eta J. Hiriart Urruty apaizak ere kolaborazioak kaleratu zituzten, eta Hegoaldeko A. Irigarai iruindarrak ere bai, besteak beste.

Esqualdun Gazteria laborari gazte giristinoen elkarteak 1956tik aurrera *Gazte* aldizkaria ateratzen zuen hilerok, erabat euskaraz. Hor hiru idazle bereizi ditugu: Emile Larre, J.L. Davant, J. Etchepare¹³.

Prensatik antzerkigintzara etorriz: euskarazko antzerkiari dagokionez, Euskal Herri osoa gogoan, 50eko hamarkadaren lehen urteetan Lapurdiko eta Nafarroa Behereko herrixka eta herri tarroetan komediak jokatzen ziren eliz aretoetan, patronaia antzerkia, eta guztien gainetik Hazparneko teatrolariak eta Haritz-Barne aretoa eta Donibane Lohizunen Begiraleak taldea eta Gure Etchea aretoa ziren erreferentzia nagusiak.

Zuberoan, aldiz, pastoralak, hots, *trajeriak*, aire zabaleko herri-antzerki kantatuak hasiak ziren berriro jokatzen (1951n *Robert Le Diable* Garindainen) 1936az geroztik bat ere jokatu gabe egon ondotik, eta hamarkadan barrena hamar pastoral prestatu eta hamaika emankizun izan ziren.

Piarres Larzabal apaizak denbora gutxian, bereziki aztergai dugun hamarraldian, parrokia inguruan apaizek sustatu eta gidaturiko antzerkigintza moldeari eraberritze handia eragin zion. Horretan mugarri gertatu ziren: *Etxahun* (1952), *Bordaxuri* (1953), *Berterretx* (1958), *Herriko botzak* (1956), *Urriki latza* (1958, Donostian 1960an) edo *Mugari tiro* (1959) antzerkiak. Laguntzaile izan zuen T. Monzon ere aipatu beharra da, bereziki haren *Zurgin Zaharra* (1954) eta *Menditarrak* antzerkiak (1959). Donibane Lohizuneko Begiraleak taldeak P. Lafitte eta Iratzederren antzerkiak-eta eman zituzten 30eko eta 40ko hamarkadan, eta 50ekoan, aldiz, T. Monzonenak nagusiki: 1953an *Harpeko bozkari* eta *Ur garbi*; 1954an *Zurgin zahar*; 1955etik 1958ra *Menditarrak* eta *Lau kantari eta txori bat*.

Lapurdi eta Baxenabarreko herrixka eta herri handi gehienetan eman ziren antzerki horiek (Hazparne, Donibane Lohizune, Mugerre, Urruña, Uztaritze, Heleta, Garazi, Baigorri, Donapaleu), are Baionan ere (*Etxahun*, *Bordaxuri*, *Berterretx* eta *Menditarrak* behinik behin), eta halaber Pariseko Euskal Etxean lehenbiziko aldiz euskaraz 1956ko apirilean, Larzabalen *Okilomendi jaun mera*, eta geroago, Monzonen *Menditarrak*.

Beste antzerki idazle hauek ere nabarmendu ziren: Paul Guilsou eta Mayi Elissagaray. Guilsouren obrarik antzeztuenak Molière-ren *Le Médecin malgré lui* komedia-fartsaren moldapena den *Pettan Mihiku* eta Nesken aldi Txekhov-en *La cerisaie*-tik moldatua (Larzabalek goretsiena *Gizona* baina dakigula ez zen eman), eta Elissagarayrena, *Ameriketako osaba*, Eusebio Erkiagak bizkaieratua 1957an baina oraintsu arte argitaratu gabea, eta On Manuel Lekuonak gipuzkeratua eta plazaratua 1965ean.

13. Hiru idazle horien artikulua banaka batzuk iruzkintzen ditut bigarren liburukian, kazetaritza eta saiakerari eskainitakoan.

Zuberoako herri-antzerki zaharrak ere eraberritzea izan zuen hamarkada horretan; izan ere, hainbat ezaugarri garrantzizkotan, hala nola luzeran, satan edo deabruen egitekoan, sujet edo gaien hautatzean (1951tik 1954ra bost pastoral ohiko gaidunak, eta handik aurrera euskal gaidunak jokatu ziren 1976. urte arte), aurreko pastorgintzarekiko inflexio-puntu ezin eztabaidatuzkoa ezarri zuen, eta pastoral idazle gisa Etxahun-Iruri nabarmendu zen guztien gainera, 50eko hamarkadan euskal gaiko hiru pastoralen idazlea izan baitzen, nahiz bere aurrekoek bezala frantsesezko kondairaren bat hartu izan zuen beti bere lanerako oinarritzat: *Etxahun koplakaria* (Barkoxe, 1953), *Matalaz* (Eskiula, 1955) eta *Berterretxe* (Maule, 1958) .

5. Zaitegiren itzulera eta *Euzko-Gogoa* erbestetik Euskal Herriaren periferiara

1954aren amaieran Orixe etorri zen Ameriketatik, eta 1955aren amaieran Zaitegi. *Gernika* 1953an desagertu zen, eta euskal kulturaren erdigunea erbestean egotetik Hego Euskal Herrira etorri zen pixkanaka 1956ko urte giltzarritik aurrera.

Aberri barruan erdigunea Bilbotik Donostiara igaro zen, edo bestela esanda, Donostia inguruko kultur mugimenduak indar gehiago hartu zuen, batez ere K. Mitxelenaren itzalaren eraginez.

F. Krutwig Parisera poliziaren beldur, eta Bilboko Ateneoaren inguruan antolatutako euskal akademiakoa gainbehera. Imanol Berriatuak Foruan Bizkaiko *Anaitasuna* sortu zuen euskara herrikoi-herrikoian. Askok oso mordoiotzat jo zuten haren eredia eta Villasante alde atera zitzaion anaikideari, nahiz delako aldizkari haren eredia ez zen Euskaltzaindiak bultzatu nahi zuena, hots, Villasantek berak, K. Mitxelenak-eta jarraitu nahi zutena. M. Lekuona ere bai: Bizkaiko *Anaitasuna* ondo zetorren Bilbo bezalako hirigune erdaldunetako euskaldunentzat.

Euskaltzaindiak Donostian idazle zaharrei buruzko hitzaldiak antolatu zituen Aldundiaren babesean 1953tik aurrera; hori lapurtera klasikoek abiarazitako mugimenduarekin nahiko erara zetorren, hots, XX. mendera arteko idazleak orduraino baino aintzatago hartzearekin, hau da, Krutwigek eta Villasantek urratutako bidearekin; lehenengo gonbidatuetariko bat Villasante bera izan zen; Axular eta Joanes Etxeberri Sarakoari buruzko hitzaldiak egin zituen lapurtera klasikoz. K. Mitxelenak, berriz, A. Oihenarti buruz egin zuen hitzaldia baliatu zuen axulartarrei honako kritika hau egiteko: Axularri jarraitzekotan joskeran ere jarraitu behar zitzaiola; ez zuela zentzurik sintaxirako maisutzat S. Altube hartzeak. Kritika horrek asko eragin zion Villasanteri geroago aitortu zuenez. M. Lekuonak Axularren *Geroren* berrargitalpena plazaratzean, K. Mitxelenak kritikatu zion herri-literaturari gora gehiegi ematea eta euskara literarioa beheratzea.

Kritikez gainera, A. Irigarai eta A. Arruerekin batera, *Egan* aldizkaria indartu zuen eta guztiz euskaraz atera zuten 1954ko bigarren aletik aurrera. *Egan* bereziki 1956tik 1963ra loratu zen, *Euzko-Gogoarekiko* lehia estu-abetesgarrian, orduan atera zituen ale mardulenak eta interesgarrienak. Kultur munduko jende famatuari elkarrizketak —Baroja, Oteiza...—, zinema-kritikak eta literatur kritikak batez ere.

Barnean Euskaltzaindia eta *Egan* indar pixka bat hartzen ari zirela —artean *Euskera* ateratzeko baimenik gabe— Zaitegiri iruditu zitzaion 1955eko urte amaieran Guatemalatik aberrira itzultzeko ordua joa zela; *Euzko-Gogoa* barnean behar zela argitaratu eta zabaldu, batez ere zabaldu, arazo handiak baitzituen erbestetik barnera sarrarazteko. Horretaz gainera, Euskal Idazleen Elkartasuna eta Euskal Etxea sortzeko asmoak ekarri zituen, eta dirua ere bai. Demagun J. A. Agirrerren babesaren ere bazuela; babes hori zenbaterainokoa zen zehaztera jo gabe —ekonomikoa behinik behin apenas!—. Argitaratu berria zuen *Bidalien egiñak* liburua, Itun Berrira bildutako testu laburraren iruzkin aski luzea, eta Orixerengandik hitzaurrea lortua, hots, Orixe handiaren gomendio-gutunarekin zetorren; beraren kazeta *Euzko-Gogoan* «Yakintza» sailean saio labur mordoxka argitaratua zen, bilduz gero beste liburu bat osatzeko lain, filosofoez: «Heidegger'en azal-kizunak»; «Platon eta Eraklito», «Rousseau Ion lakue», «Platon eta Parminedeta» «Platon eta Pitagora-ta»...eta idazle frantses batzuei buruzko artikulu laburrageoz: «Staël anderea», «Lamennais», «Villon», «Rabelais», «Aldi Erdiko Edesti-Idazleak Parantze'n», eta kultur ondare horrekin gai ikusten zuen bere burua euskal kultur gintza gidatzeko hortxe nonbait.

Euskaltzain laguntzailea zenez, joan zen Euskaltzaindiak 1956an egindako batzar batzuetara, Arantzazuko iraileko hiru eguneko batzar famatuak baino lehen, harrabotsik eta zalapartarik sortu gabe ditugun akta apur eta kaxkarren argitasunetatik epaitzera¹⁴. Baina laster etorri zen Zaitegiren asmoen porrota eta Iparraldera jo beharra, Hego Euskal Herriko erdigunetik —frankismoak kontrolatu eta zentsuratutako erdigunea, baina, haatik, erdigunea— Ipar Euskal Herriko periferiara.

Talka Alfontso Irigoienekin —Euskaltzaindiaren idazkariordea; idazkaria Nazario Oleaga, baina idazkari lanetan A. Irigoien— eta batez ere K. Mitxelenarekin egin zuen.

Jendaurreko talka idatzi nagusia *Euzko-Gogoa* eta *Eganen* orrietan gertatu zen Zaitegi («U» sinadurapean, hots, Zaitegik erabili ohi zuen «Udalaitz» ezizenaren lehen hizkia; Urrestarazu zela pentsarazi zuena; baina, ez, Zaitegi zen) eta K. Mitxelenaren artean. Zaitegiren aipamena oso laburra zen:

Azkenik eskuetara zait Euskaltzaindia'ren aldizkaria: ao bete aginekin utzi nau, damurik. Zortzi idazlanetatik bi soilik euskeraz, Altube ta Lekuona euskaltzain iakintsuenak, alegia. Dirudinez, zenbaiten iritzian, euskera zaitzeko biderik ederrera erderaz idaztea bide da. Nik, beintzat, eztut aien begietatik argia ikusten, ala bearrik(...) Areago euskeraz mintzatzeko ta idazteko garaian bizi gera, euskera dalata erderaz baino. Euskalariak baino areago euskaldun eta euskaltzaleak bear ditugu, noski baino noskiago, beste nonbait idatzi nunez (Zaitegi, 1956).

K. Mitxelenak eman zion erantzuna, oso tonu ironiko gogorrean: Euskaltzaindiak lehen ere gaztelaniaz eman zituela bere idatzi nagusiak —R.M. Azkueren *Morfologia vasca* edo S. Altuberen *Erderismos*—, eta ez zuela inoiz esan aldi berrian euskara hutsez hasiko zenik, eta, beraz, ez zuela zertan aho bete haginekin gelditu; baina, dudarik gabe, K. Mitxelena bere onetik aterarazi zuen

14. Euskaltzaindiaren artxiboan oso gauza gutxi dago garai honetakoa.

esaldia hau izan zen: «Euskalariak baino areago euskaldun eta euskaltzaleak bear ditugu, noski baino noskiago, beste nonbait idatzi nunez». Euskaldun eta euskaltzaleak K. Mitxelena bezalako euskalariak baino garrantzizkoagoak euskararen auziak garbitzeko? Ez horixe!, Euskaltzaindia eta euskararen auziak euskalariak garbituko eta trenkatuko zituzten, ez Zaitegi bezalako idealista kixoteek (Mitxelena, 1956).

Zaitegik nahiz formulazioan edo maneretan hanka sartu zuen, funtsean, ez zuen beste munduko gauzarik eskatu: Euskaltzaindiak bere lanak euskaraz argitaratzea, inguruko beste edozein akademiak bezala, baina, esan liteke, historiaren talaiatik ikusirik, bere hilobia berak zulatu zuela Euskaltzaindiaren bigarren aldiko lehen *Eusker*a aldizkariak argitaratutako aipamen labur bezain erresumingarri horrekin.

1956ko irailean Arantzazuko hiru eguneko batzar famatuak iragan ondoan, hurrengo hilean beste batzar bat egin zen, eta han batzarkideen aurrean eztabaida gogorra izan zuten A. Irigoienek eta Zaitegik. K. Mitxelenak ez zuen joaterik izan, baina badaude haren gutunak A. Irigoien eta L. Villasanteri eginak Zaitegiren asmoen aurkari gogorrena eta eraginkorrena bera izan zela frogatzen dutenak.

Zergatik moztu zizkion hegoak Mitxelenak Zaitegiri? Pare bat arrazoi axola handiko aipa litezke: 1. Frankismo betean ondo kostatako Euskaltzaindiaren berpizte apala arriskuan jar zezakeen Zaitegik. *Euzko-Gogoa* Espainian argitaratzeko baimenik ez zioten eman, nahiz agintari zibil eta espiritualekin lortzen saiatu zen; aberrian ez ezik erbestean zeuden euskal idazleekin sortu nahi zuen Euskal Idazleen Elkartasuna, eta haren agerkari ofiziala *Euzko-Gogoa* izatea nahi zuen —gurari guztiz legez kontrakoa frankismoarentzat, eta beraz arriskutsua—; eta, 2. Euskal kultur mugimenduaren lider eta gidari berak izan nahi zuen, eta, hasteko, haren literatur ereduak ez zuen begiko: arrasatearrak ez zion erakutsiko K. Mitxelenari euskararen literatur ereduak zein izan behar zuen.

Zaitegik bere aldizkariarekin Miarriztera jo behar izan zuen. Han lortu zuen P. Lafitteren eta E. Salaberryren lankidetzak, P. Narbaitzen oniritzi espiritualak ere bai, eta horrekin batean J. Mirande eta Tx. Peillen galdu zituen —*Eganen* argitaratzera igaro ziren—, eta gorago adierazi bezala periferian geratu zen; erbestetik periferiara egin zuen, eta 1962an, sos guztiak galdurik, berriro erbestera.

6. Existenzialismoaren goraldia eta protobatuaren lehen urratsak

1957an argitaratu zuen Txillardegik *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberria. Kultur eztrandatxoa eragin zuen. Hitzaurrea, jakina denez, K. Mitxelenak egin zion. Egunkari itxuran taxaturiko lehen eleberririk modernoa euskaraz. Mugarri bat euskal narraziogintzan.

Lehenago, gerren ondoan, J. A. Irazustaren *Joañixio* eta *Bizia garratza da*; J. Eizagirrenen *Ekaitzpean*; J. P. Iratcheten *Antton*; J. Etxaideren *Alos-torrea* eta *Joanak-joan*, eta J. A. Loidiren *Amabost egun Urgain'en* argitaratu ziren.

Gotzon Garate zenaren ustez, *Joañixio* eleberririk euskal errealismoari atea ireki zion; ez beste literatura handirik batzuetan bezala errealismo burgesari, heroi burgesaren abenturak deskribatzen dituenari, baizik eta herritar xume eta ez hain

xumeen bizitza errealista kontatzeari. J. M. Iturrালের aburuz, berriz, J. A. Irazustaren bi eleberriak elkarren osagarri dira, sinbolistak dira: pertsonaia nagusiak eta haien jokaerak autorearen beraren egoeraren eta une hartan Euskadi sufritzen ari zen kalbarioaren sinbolo. Nolanahi ere, oso urte txarretan argitaratu ziren Buenos Airesen, eta Irazustaren obrak ez zuen bere garaian oihartzun eta eragin handirik izan.

Irazusta batek zenbat eragingo ote zion J. Etxaide bati? Ez du ematen eragin zuzenik egon zenik bien artean. Etxaidek ere eman zion sarrera, oro har, errealismo esaten zaionari, bizitzaren alde materialistari, sexu-grinari-eta, baina Etxaideren eleberrigintza, berak argi eta garbi salatu bezala, giristinoa da guztiz; bizitzan egon badagoen alde iluna, gaiztoa, makurra indargabetzeko erarik eraginkorra amodioa, hurkoarenganako maitasuna da; Etxaideren eleberriguztietan dago pertsonaiaren bat besteengatik sakrifikatuz elkarren aurka dauden aldeak adiskidetzera ekartzen dituena, gatazkak baketzen dituena.

Joanak-Joan lanean, esaterako, Maider izeneko protagonista. Etxahun beraren, haren emazte ezkon-hauslearen eta emaztearen maitalearen eta azken honen emaztearen artean gatazka bortitza eraiki ondoan, protagonista bilakatzen hasten da Maider gaztea, gainerako pertsonaiei eragiten eta haiek onbideratzen. Hamabi urteko alaba sasikoa den Maider hasten da Madalenako ermitara joaten Jainkoari aitagatik otoitz egitera, maitalea utzi eta amagana itzul dadin. Otoitzak ez dira aski izango, azkenean bizia emango du Jesukristok Golgota mendian bezala honek Madalenako mendian, elurretan izozturik. Sakrifizio tragiko horren indarrez etorriko dira eleberraren hariaren urak bere bidera. Euskaltzaindiak saria eman zion 1955ean, eta oso ondo hartua izan zen eta ez zuen polemikarik sortu.

Txillardegiren *Letuariaren egunkari ezkutua*-k berriz bai. Haste beretik Irazustaren, edo Etxaideren pertsonaietatik eta idazkeratik oso bestelakoa: lehen pertsonan idatzia, bere buruarekiko kontuak garbitzearen gizartetik bakardadera jotzen duen pertsonaiaren egunkaria:

Bakarrik nago «Zerubide»n. Baina ez nitaz urrikal, nahita etorri naiz-eta bakarrik egotera. Eta bai pozik, alegia! Hemen bakarrik nago, egia esan; baina nahiago dut mila aldiz orain bezala egonda, piskanaka-piskanaka, zeru-lurraren handi eta ederra dastatu, jende askok inguratuta denbora alferrik xahutu eta galdu baino (...) Hots, neure buruarekiko kontuak garbitzeko joaten naiz bakarrik, garbiketa hutsa baita, eta egiazko aitorketa, bakardadean egiten dudana egonaldia. Neure burua ordea gezurtatu nahi dudanean, ezin dagoke aitorketarik, eta ez dut bakarrik egon nahi ohi. Beldurra da, bada, nire buruaren beldurra alegia, bakardadetik baztertzen nauena (Txillardegi, 1983: 25-26).

Txillardegik berak idatzi eta hogeitaz urtera atzera begira jarri horrelako azalpenak eman zituen soldadutza egiten Galizian zegoela idatzi zuen eleberriaz:

LETURIA, liburuaren egilea bera bezala, gizon eta emakume guztiok bezala, bere giroko seme da. Eta urte haietan, pasatzen dextente hasia egia aitortzeko, etsistenzialismoaren moda zegoen. Camus, Sartre, Jaspers, Kierkegaard... Izatearen zoritxarra gailen. Eta gure Unamuno iragarle. Moda hasia zen pasatzen, nion. Etsistenzialismoak modan jarri zituen arazoak ez baitira pasa, ez baitira gainditu; gizona gizon deno ez baitira pasako.

Eta barne-min hori, «être pour la mort» delakoaren goragalea, sinbolotan eta nobela gisa azaltzea bururatu zitzaidan.

Camus-en La Peste (Izurritea) neukan gogoan; eta nik neuk ere, sinbolakuntza osoan, funts handiko liburu bat moldatu nahi nuen. Miren, horretara, gizonaren xedearen irudia zen ene asmoan, bidean aurkiturik eta absolutu bilakatua; «Zerubide», izenak berak salatzen duenez, Absoluturako bidean Naturaren irudia; Paris, berriz, unibertsalismoarena; eta, azken erremedio gisa, petrikiloarengana jotzeak ba zeukan, ene asmoan behintzat, Naturara bihurtu eta Zientzia soilari buruzko mesfidantzakutsu nabarmena. LETURIA, azkenekorik, kristaua zen, geroko PERU LEARTZAKO-az bestaldera; eta nahiz oso heterodoxo izan.

Ez dakit oraindik ere ene sinbolakuntza horretaz inor, nik nahi bezenbat bederen, ohartua denik (Txillardegi, 1983: 19-20).

Idatzi eta argitaratu zen mementoan gehienbat aldeko aipamenak sorrarazi zituen, baina aurkakoak ere bai.

Jakina denez, K. Mitxelenak tradizio-haustura nabarmena ikusi zuen eleberri horretan, eta gizaldi berri baten aitzindaritzat jo zuen:

Ez dut uste inoiz gure hizkuntzan entzun denik horrelako hitz larririk, horren zinezko aitorrak, horrenbesteko karraxi sarkorrik. Ez dugu sekula egin, hitz batean esateko, Leturia-rena bezalako ibilaldirik gogobideetan barrena;(…)Nik ez dut Txillardegi bakarrik ikusten. Txillardegi eta «Leturiaren egunkari ezkutua» gizaldi berri baten eta gizaldi horren obren aintzindari gisa agertzen zaizkit. Ez dut uste oker nagoenik eta ez nuke inolaz ere oker egon nahi. Ate-joka dagoneko deus gutxi ezagutzen ditugun ondorengoak (Txillardegi, 1983: 11-14).

L. Villasantek eleberriak uzten omen duen inpresio garratza, samina, mingotsa nabarmendu zuen, eta beharturik sentitu zen irakaspen teologikoa ematera (Villasante, 1958a: 48-52; 1958b: 196-204):

Existenzialisten eskolak moda ori jarri digu: giza-bizitzaren tajugabea azaltzea. Ez munduari ta ez gizonari ez omen zaio nondik-norakorik ikusten. Aurretik lillura gezurtia ta engañagarria, eta gero, lilluratik esnatutakoan, egia gordin eta ikaragarriakin topo egin bearra, eta ortik etsipena (.) Ba ote du tesis garbirik eleberri onek? Ez nuke esango. Leturia ori erdi-ero bezala azaltzen zaigu (.) Baiña tesis ideologiko agiri bat ez baldin badu eleberri onek, inpresio bat bai uzten duela, aogozo berezi bat, ta ondo garratza, samiña, mingotxa (.) Bizitza ez ote dan xede gabeko zerbait, engaño bat, burla bat (Villasante, 1957: 328-332).

Txillardegik Aita Villasanteri ez zion erantzun, baina Iñaki Bastarrika orduan frantziskotar teologo ikasle zenari bai. Eztabaida ideologikoen atalean erakutsi dugu Bastarrika eta Txillardegi elkarrengandik urrun ez zebiltzala¹⁵. I. Bastarrikak existenzialismoari alde on hau aitortzen zion: Eliza eta Eskolastika gizakia lehen mailan jartzera ekarri izana; eta alde makur hau egozten: existenzialista gehienak Goi-argitik landa aritu zirela. Txillardegi, berriz, 50eko hamarraldian kaleratutako artikulu eta kontakizunen arabera, oroz lehen, sinesmenari edo bizierari zentzua emateko oinarri edo arrazoien bila ageri zaigu, erlijio soziologikotik harago eta harengandik aldendu nahi bizian, bilaketa larrimintsu espiritualean, giro

15. Atal hau lehen liburuan doa, bigarren kapituluan.

materialista-ekonomizistari aitz, idazle existentzialista anbibalenteen iturrian irrikaz edanez, astronomiaren eta zientziaren unibertsoari buruzko aurkikuntzei eta ezjakintasunei adi, eta aldi berean sinesmena aitortzeko gupidarik gabe. Eliza katolikoarekin hautsi gabe erabat —etorkor ere—, heterodoxiaren muga baina hautsi gabetanik, bizitzaren zentzuaren larriminezko bilaketa artegan.

Hona Bastarrikaren iruzkina (Bastarrika, 1957):

Naste-borraste bat-edo otu zitzaidakean. Aria ondo eramana. Baiño arrunta xamarra...nere gardiz. Astuntxoegi ere ez ote duk? Maiz orrialdeak saillean pasatzeko gogoak ere ematen zidakekan. Irakurtzale porrokatu nauk izatez, batez ere elertifilosofi gaietan. Ez dikat, bada, uste oitura-ezatic ditekeanik...(.) Jainko orren irudi margul ori...Moral aldetik bakarrik ez, «Etika natural» aldetik ere etzekikat nola epaitu leizken...Dostoievski baten eleberrietan ireak baiña intziri etsituagoak arkitzen dituk orrialde bakoitzean, baiño egoki ta bere puntuan otutsen zaiok edonori. Naiz-ta bapatean Jainko ta gizaki guzien aurka biurtu, beti egoki. Etortasun, egitasun onen palta edo egokitasuna somatzen dikat ire ontan. Nortasun egin baten pentsaera umotua baiño, esistanzialista joerako nobelari asko irakurritako baten saioak iruditu zaizkidak ire bururapenak (.) Bazegok gure errian bertan ikutu gabeko naiko eleberrigai ederrik asko. Nork bilduko ta eleberrituko zizkiguk? Murgil adi gure erriaren barne-arazotan.

Eta hona Txillardegiren arrapostua (Txillardegi, 1958b):

Esistentzialisten zerbait irakurria dudala ez dizut ukatuko. Lotsagarria al da bada? Bañan onek ez du ezer adierazten. Gaur Sartre, Unamuno edo Heidegger beñere ezagutu ez dituzten gazteak ere, gertuago daude alaz ere berengandik edozeñengandik baiño (.) Orregatik «Leturia» ez da, izan ere, nere asmakari bat, zzero beñepein. Egiatzko den neurrian kopia bat da: nik nere inguruan ikusi uste dudanaren irudia ain zuzen. Nere liburua eta ni, biok kuadroa eta bere pintatzailea gera. Eta au ez ba gera, alperrik saiatu naiz.

Ortaz, eta ziñez esan dezaket au, nik ez diot iñori zorrik. «Eragilleen» kutsu ori, ezta besteen kutsua, ezta kopiarik, besteakiko topo eta egokiera utsa baizik. Gaurko geran guziok bazter eta paisaje berberak ikusten ditugu-ta.(...) Zure ustez «Euskalerriko gaiak» ukitu bear dira bakarrik. Izan ere, Euskalerriko bizieran edo kondairan badira, noski, idazki mamitsu asko. Baña zer da «gure erriaren barne-arazoetan» aipatu duzun ori? Zure ustez, oker ez banago, ezpaitzera zu leenengo xinplekeri oietan, euskeraz idazteko «emengo» zerbaitez egin bear da. Zertara joko «kanpora»?

Baña, zer da «emen»? Zer da Euskalerria zure ustez? Badakit. Diferente dena: izkuntza dena, lamiñen ipuiak, basojauna, baserria, korrika apostuak, aitonen semeen istorioak eta abar. Auetxek osatzen dute, zure ustez, beste anitzen ustez bezela, euskalduntasuna; eta euskaldun literatura egiten asi geran ezker, oietzaz mintzatu bear dugu idazleok, eta ez beste ezertaz ere. Auetzaz kanpo... utikan!(...)

Baña, onatx korapilloa: gauza oiek Euskalerria erritzat BEREIZTEN ba dute ere, ez gaituzte gu euskaldunok presunatzat OSATZEN. Zuk opa duzun literatura ori ez litzake euskaldun presunena izango, Euskalerriko tipismoarena baizik. Etzera bakarra iritzi ontan. Baña zuri, kasorik egingo bagenizu etxetiar literatura egingo genuke, etxeoentzako literatura utsa, ots, literatura motxa. Edo, obeto esan, sasi-literatura.

Euskaldunok, nere Leturia bezela, gizon gera guziz, baiña euskaldun erara. Gaurko gaztediaren katramillez mintzatzen da nere Leturia, baiñan euskeraz.

Presuna unibersala da Leturia; bere mintzaira, guziarekin ere, gure izkuntza. Mamia eta azala ez ditugu naasi bear.

Ale berean kaleratu zen Iñaki Bastarrikaren erantzuna ere. Aurrekoan beldurrik gabe erasoan bezala, oraingoan defentsiban, eta berari baino gehiago Txillardegik beste norbaiti, eta agian talde oso bati ere ari ez ote zitzaion susmoa harturik.

Puntu asko zituzten komunean Bastarririk eta Txillardegik une hartan, baina kideasunak bazter utzi eta diferentziak azpimarratu zituzten.

7. Hamarkada amaierako kultur egoera

Bastarrika eta Txillardegiren arteko talkak hizkuntzari zegokion atal bat ere izan zuen. Gaurko talaiatik begiraturik, azaldu beharra dago zer ikusteko zuen existentzialismoak euskara ereduarekin, bestela ulergaitza egiten baita; bada bazuen, zentzu honetan: Orixek eta Zaitetik-eta kultur gaietarako erabiltzen zuten euskara garbiegiarekin ezin zen euskaldun erdaraz eskolatuengana iritsi; beraz, ezin zen kultur komunitate bat eratu, eta hortaz, ezinbestekoa zen, ezer baino lehen, euskaldun eskolatuak erraz ulertuko zuten euskara erabiltzea, eta gaiak gaur-gaurkoak izatea. Biak batean. Gai berriak, gaurkotasun handikoak, eta euskara ere berritua, erraztua. Txillardegik Bastarrikari erasotzean «zu eta zu bezalakoek euskara hil nai duzute», eta Intxaustik adierazi zuenean «euskera illobira bultzatzen ari zaizkigu zenbait euskal-idazle, nai dan borondate onenarekin ere» (Intxausti, 1959), horra hor bien arteko segida.

Intxaustik biraketa nabarmena eragin zuen *Jakin* aldizkariaren martxan 1959tik aurrera. Orduraino *Jakinek* Orixe eta Zaitegi zituen bide-erakusle, bereziki Orixe. Baina Txillardegik Bastarrikarekin izan zuen eztabaidaren ondotik eta K. Mitxelenak *Eganen* egiten zuen kritika-lanak indarturik eta, jakina, bere esperientzia propioan oinarriturik, aurre egin zion Orixeri; «Existenziaren zentzuaz» izandako eztabaida da horren lekuko adierazgarriena.

Gerraurreko belaunaldiak eta gerraondokoak talka egin zuten, talka hizkuntza-eredu eta ideologia aldetik. Borroka horrek adar eta ildo askotxo izan zuen. K. Mitxelenak, oro har, belaunaldi gaztearen alde jokatu zuen, baina erabat bat etorri gabe. Esaterako, Txillardegiren arabera, orduko gazteria existentzialismoak eta budismoak liluratua zegoen; eta bien artean harreman estua zegoen. K. Mitxelenarentzat, aldiz, Mendebaldeko zibilizazioak garatutako jakintza boterea zen; ezin zen inola ere gaitzetsi eta kontuan hartu ez, eta geureganatua genuen teknikaz gain, Europatik geureganatzeko asko geneukan Asiako ondare espiritualera jo gabe.

Anaia Intxausti gazteak, orduan *Yakin* aldizkariaren zuzendari zenak, bere gisara, K. Mitxelenarekiko paralelo, europar filosofia eta kultura galdegiten zituen euskal kulturarentzat, herri-kulturakeriaren eta baserritakeria atzerakoiaren aurka. Orixek Aristoteles errebindikatzen jarraitzen zuen, kultura greko-latindarra eta kristautasun katoliko jatorrena.

1960an, Intxaustik Txillardegiri elkarrizketa egin zion *Jakinetik* —*Yakin*-en lehen alean, Iñaki Bastarrikak J. Zaitegiri egindako elkarrizketa zetorren¹⁶. Miresmenak aldatuak ziren!—. Elkarrizketaren amaieran dio Intxaustik, ziur dagoela beste askok barnean ezin adieraziz zeukaten zerbait adierazi zuela antiguatarrak; eta Txillardegik *jakinlariei* adierazten zien barne kezkatia sutzen zutenean, euskaldunen bizi-arazoa askabidean izango zela.

Gorago adierazi dugu 1956tik aurrera erbesteak indarra galdu zuela eta Euskaltzaindia eta *Egan* indartzen hasi zirela.

Zaitegik denbora batean eutsi zion *Euzko-Gogoari*, ale bat eskaini zioten maisu eta eredu handitzat zuten R. Olabide jesuita euskaltzaleari, *Itun Zaharra*-ren eta *Itun Berria*-ren itzultzaile gogotsuari, baina kazetak pixkanaka behera egin zuen, eta gazteen aldetik *Yakinen* lehen urteetan izan zuten sostengua galdu egin zuten.

Euskaltzaindiak Arantzazuko batzarraren ondotik, Bilbon egin zuen batzar garrantziko bat 1958ko abenduan, eta hurrengo urtean Eibarren. Bien bitartean, Bilbon egindako batzarren ondorio gisa, 1959ko udaberrian «Euskal hitzak zein diren» erabaki zuen, eta horrek mindu egin zituen euzkogogoatar gehienak, Orixeburu zela, eta hurrengo hamarkadan jarraipena izango zuen zatiketa ekarri zuen, batean protobatuaren bultzatzaileak, eta bestean gipuzkera osotuaren aldeko garbizaleak.

Zatiketa horretan K. Mitxelenak gorago adierazi bezala, gazteen alde egin zuen: Txillardegi, Aresti eta Miranderen alde, eta *Yakin* bereziki J. Intxaustik zuzendaritza hartzetik aurrera —1959— Euskaltzaindiaren magalera bildu zen, nolabait esatearren.

J. Intxausti, gorago adierazi bezala, Txillardegiren artikuluek eta K. Mitxelenaren kritika-lanek indarturik, ausartu zen Orixerekin eztabaida linguistikoa eta filosofikoa izatera, eta 1960 inguruan, *Jakin* euskara eta kultura modernoa lotzeko eta sustatzeko plataforma edo erakunde garrantzizkoa zen, gure mugak kontuan, ttipia izanagatik. Kultura modernoarena ñabartu beharra dago: 1959tik aurrera aldizkariko kide kualifikatua izan zen J. Azurmendik klerikalismo aurrerakoitzat jotzen zuen ideologikoki *Jakin* 1956tik 1961era, mesianismo profetikoak joa (Batzuen Artea, 1981: 127-130).

Saiakera aldetik S. Mitxelenaren *Unamuno ta Abendats* gailendu zen guztien gaintetik hamarkadan barrena. Hamarraldi guztian axola handia izan zuten kazetei dagokienez, lehen zatian erregea izan zen *Euzko-Gogoa* hil egin zen hamarkada amaieran; eta haren lekukoa *Eganek*, kultura eta literaturara emanago, eta *Jakinek* hartu zuten, azken hau filosofia eta pentsamendura irauliago.

Eleberrigintza aldetik, hamarraldiaren amaiera aldera *Leturiaren* ondotik, Txillardegiren beraren *Peru Leartzako*, E. Erkiagaren *Araibar zalduna*, J. Etcheperaren *Ithurraldea* eta J. Miranderen *Haur Besoetakoa* etorri ziren. Susperralditxo bat.

16. Elustondo, M. A. (2006): “Imanol Urbietari elkarrizketa”, *Jakin*, 156, 60. or.; Imanol Urbietak: «Iñaki Bastarrikak idatzi zuen artikulua hori, nahiz eta nire izenarekin sinatu».

Poesiak ez zuen gora egin, baina eutsi zion —S. Onaindiak *Olerti* sortu zuen 1959an—. Eta urte berean G. Arestik *Maldan Behera* aurkeztu zuen.

60ko hamarkadako euskal ekoizpen ezagunxeagoa ezin esplikatu eta ulertu 50ekoa ezagutu gabe: G. Arestiren 60ko hamarkadako obra, R. Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* eta poesia bera ere askoz ezezagunagoa, edo 60ko poesia, eta Joxe Azurmendiren «Baiña zergatik eta zertarako euskaldun?» galderak sortutako polemika; R. Arregik sortuak, «Sozialismoa modan dago» eta batez ere «Euskaltzaileen jainkoa ill bear dugu»-rekin, eta 1970etik 1975era euskal saiakerak bizi izan zuen goraldi berehala porrot egina. Eta, jakina, batetik besterako hariak eta lerro zuzen eta zeharkakoak esplikatu eta azaldu egin behar. Baina hori besterik da!

Bibliografia

- Alvarez Enparanza, J. L. «Txillardegi» (1958a): “Betikoaz agian”, *Egan*, **1-2**.
———, (1958b): “Iñaki Bastarrika ‘ko jaunari erantzuna”, *Yakin*, **6** [eskuraerazago Interneten dauden *Susa* argitaletxearen literatur kritiketatik: <<http://www.armiarma.com/emailuok/>>].
———, (1983): *Leturiaren egunkari ezkutua*, Elkar, Donostia.
- Bastarrika, I. (1957): “‘Txillardegi’ jaunari”, *Yakin*, **5**.
- Batzuen Artean (1981): “Bilakaera ideologikoa”, *25 urte euskal kulturari*, *Jakin*, **21**.
- Etxaniz, N. (1978): *Lur berri billa*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa, Donostia.
- Intxausti, J. (1959): “Illobira bultzaka”, *Jakin*, **9**.
———, (1979): “Zaitegi eta *Euzko-Gogoa* (I). *Euzko-Gogoa*-ren lankideak”, *Jakin*, **12**.
———, (1980): “Hamar urteko lana (1950-1959)”, *Jakin*, **13**.
- Krutwig, F. (1949): “Zergatik?”, *Egan*, **3**.
———, (1950): “Arantzazu: euskal-poema”, *Aranzazu*, **11**.
———, (1951a): “Zer Naiz?”, *Gernika*, **16**.
———, (1951b): “Humanismu, gizabidea”, *Gernika*, **17**.
———, (1952): “Bulharraren labyrinthua”, *Euzko-Gogoa*, **5-6**.
- Laffite, P. (1956): “Ba, badakigu zer nahi dugun”, *Herria*, 1956-09-06.
- Mintegi, L. (1984): “Federiko Krutwig: ‘Euskara, erdalduntzeko bidea bilaka daiteke’”, *Argia*, 1984-04-22.
- Mixelena, K. (1956): “*Euzko-Gogoa* eta *Euskera*”, *Egan*, **5-6**.
- Murua, I. (1997): “Federiko Krutwigi elkarriketa”, *Jakin*, **101**.
- Ormaetxea, N. «Orixe» (1950): “Gizabidea”, *Gernika*, **11-12**.
———, (1951): “Quito ‘n arrebarekin”, *Euzko-Gogoa*, **7-8**.
———, (1953): “Ezinbestean (Andimari)”, *Gernika*, **23**.
———, (1972): *Euskaldunak poema eta olerki guziak*, Auñamendi, Donostia.
- Sudupe, P. (prest.) (2002): *Piarres Lafitteren kazetari-lan hautatuak*, Elkar, Donostia.
- Villasante, L. (1957): “Leturiaren egunkari ezkutua”, *Egan*, **5-6**.
———, (1958a): “Munduaren egokitasuna eta Jainkoa (I)”, *Egan*, **1-2**.
———, (1958b): “Munduaren egokitasuna eta Jainkoa (II)”, *Egan*, **3-6**.
- Zaitegi, J. (1956): “Euskera. Euskaltzaindiaren lan eta agiriak, I, 1956”, *Euzko-Gogoa*, **1-2**.

